

AURRERA!



Bulego Teknologikoak argitaratua
Estrategia Digitalaren Zuzendaritza

BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIA BERRIEN DIBULGAZIOZKO ALDIZKARIA

90. zk. • 2024ko abendua



Datuen gobernantza EAEko sektore publikoan

Eusko Jaurlaritzak, Estrategia Digitalaren Zuzendaritzaren bitartez, "EAEko sektore publikoko Datuaren Bulegoa" jarri berri du martxan. Baina, zer da? Zertarako balio du? Zertan lagunduko digu?



TEKgunea 4.0

TEKgunea ezinbesteko hitzordua da teknologian eta horrek administrazio publikoan duen eraginean interesa duten pertsonentzat. Abenduaren 4an laugarren edizioa egin zen.


6

ALBOAN

SEN vs ISO27001

Eusko Jaurlaritza ISO27001 ziurtagiria lortzeko lehen urratsak ematen hasi da, segurtasun-prozesu guztiak etengabe hobetzen laguntzeko.

10



12

BAIC Adimen Artifizialaren egoera EAEn

Basque Artificial Intelligence Centerrek (BAIC) urrian aurkeztu zuen AAK EAEn duen egoeraren lehen diagnostikoa. Txosten horrek AAREN ekosistemaren egungo egoera eta etorkizun potentziala ebaluatzen ditu.

2024ko Gladys Saria Lorea Argarate Zubia- rentzat

Lorea Argarate Zubia teknologo eta musikariak IV. Gladys Saria jaso du, EAEko ingurune digitalean lan egiten duten emakume gazteen lana aitortzeko.





Datuen gobernantza EAEko sektore publikoan

Eusko Jaurlaritzak, Estrategia Digitalaren Zuzendaritzaren bitartez, “EAEko sektore publikoko Datuaren Bulegoa” jarri berri du martxan. Baina, zer da? Zertarako balio du? Zertan lagunduko digu?

Aurrera¹ aldizkariaren aurreko artikuluetan, datuen gobernantza sustatzeko jarduerak, rolak eta erantzukizunak definitzearen garrantzia nabarmendu zen. Artikulu honek konpromiso hori laburbiltzen eta indartzen du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) sektore publikoko **helburu** nagusiak, bultzatutako **ekimenak** eta lortutako **emaitzak** zehazten ditu.



zaizkie, eta baliabide publikoak optimizatu dira.

Erronka hedatua eta partekatua da eraldaketa digitalaren prozesuan murgilduta dauden antolakunde eta administrazioen artean, eta nazioartean aitortua du garrantzia. 2020-2030 aldirako Europar Batasuneko Estrategia Digitalaren² eta 2023ko Datuen Gobernantzari buruzko Europako Legearen³ (*Data Governance Act*) funtsezko zutabeetako bat da, datuen kudeaketa etiko, seguru eta efizientea sustatzen baitute baliabide estrategiko gisa.

«Datuen gobernantza ez da proiektu bat, praktika bat baizik»

ONURAK

Datuen gobernantza sendoa ezartzeak efizientzia administratiboa optimizatzen du eta zerbitzu publikoen kalitatea hobetzen du, eta, aldi berean, gardentasuna eta informazioaren erabilera arduratsua sustatzen ditu. Jarraian, Administrazioarentzat (barneko onurak) eta herritarrentzat (kanpoko onurak) dakartzan onurak azaltzen dira:

EAEko sektore publikorako onurak

- Erabakiak hobeto hartzea: datu fidagarriek aukera ematen dute informazioan oinarritutako erabakiak hartzeko eta herritarren beharrei hobeto erantzuteko.

ZER DA DATUEN GOBERNANTZA ETA ZERTARAKO BALIO DU?

Datuen gobernantza honela definitzen da: **datuen kudeaketa estrategikoa**, datuen **kalitatea**, **osotasuna**, **segurtasuna** eta **erabilera etikoa** bermatzen duten politika, araudi eta praktiken bidez. Informaziorako sarbide koherentea eta arduratsua ziurtatzen duten estandar komunak eta kontrol-mekanismoak ezartzen ditu. **Datuen balioa maximizatzea** du helburu, informazioan eta datuetan oinarritutako erabakiak hartzeko. Hala, herritarrei kalitate hobeko zerbitzuak emango

¹ **Aurrera aldizkaria:** informazio gehiago behar baduzue, artikulu hauek kontsulta ditzakezue:

- “*Datuaren Gobernua*”, Aurrera aldizkaria 77. zk. (2021eko iraila)

- “*Alboan: Datuaren Gobernua Eusko Jaurlaritzan*”, Aurrera aldizkaria 80. zk. (2022ko ekaina)

² **Europar Batasuneko Estrategia Digitala:** hemen daukazue informazio gehiago:

https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/europe-fit-digital-age/european-data-strategy_es

³ **Datuen Gobernantzari buruzko Europako Legea:** hemen daukazue eskuragarri informazio gehiago:

<https://digital-strategy.ec.europa.eu/es/policies/data-governance-act>

- Efizientzia administratiboa handitzea: datuen elkarreragingarritasunak erredundantziak murrizten ditu eta sailen arteko koordinazioa hobetzen du.
- Arriskuak murriztea: datuak estandarizatzeak akatsak murrizten ditu eta araudia betetzea errazten du.
- Berrikuntza sustatzea: kalitatezko datuak erabiltzeak bide ematen du analitika aurreratuko eta adimen artifizialeko proiektuak egiteko.

eta gardentasuna hobetzeko funtsezko elementua, bat etorrita Europako araudiekin, hala nola Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrarekin (DBEO) eta Europar Batasuneko Adimen Artifizialaren (AA) Erregelamenduarekin. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren 2024-2028 Gobernu Programak estrategia horren garrantzia nabarmentzen du (V. ardatzean, 31. jarduketa-arloan, 148. konpromisoan), eta Administrazioaren modernizazioan eta efizientzian funtsezko eginkizuna duela azpimarratzen du, estrategia horretan zehaztutakoari jarraipena emanik.



EAEko herritarrengan duen eragina

- Gardentasuna eta datu publikoetarako sarbidea: informazio argia eskuratzeko errazten du, eta Administrazio arduratsua sustatzen.
- Zerbitzu publiko pertsonalizatuak: arreta hobetzen du, EAEko herritarren behar espezifikoetara egokituta.
- Konfiantza publikoa: datuak etikoki kudeatzeak herritarrek Administrazioan duten konfiantza indartzen du.



⁴ **Ardatz 2030:** Herritarrak Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritzak sustatutako 2030erako plan estrategikoa da.

<https://www.euskadi.eus/zer-da-ardatz-2030/web01-ardatz/eu/>

Plan horren bidez, Administrazio Publikoak datuen eta informazioaren gobernantza segurua izatea lortu nahi da, eta datu pertsonalak babes ditzala, balio sozial eta ekonomikoa sortzeaz gain.

Adibide praktikoa: pandemian, datuen gobernantzari esker, Osakidetzaren Covid-19aren kasu positiboak buruzko datuak eta ikasleen zerrendak konbinatu ahal izan ziren. Horri esker, erantzun koordinatua eman ahal izan zen, hezkuntza-ingurunekeo kontaktuak identifikatzeko eta haiekin harremanetan jartzeko.

Estrategiak datuen gobernantzaren oinarri nagusiak, erronkak, aplikazio-eremuak eta irismena jasotzen ditu, datuaren kultura sustatzeko funtsezko eragileen arteko harreman-eredua definitzen du, eta ekimen, ekintza eta proiektu zehatzen ibilbide-orri bat planteatzen du, gobernu-ekintzak gauzatzeko funtsezkoak diren premia eta aukerei heltzen diena.

⁵ **Datuen gobernantza-estrategia:** Eusko Jaurlaritzaren web-orria, EAEko sektore publikoko datuen gobernantzari buruzkoa. Bertan, jarraitu behar den estrategia jasotzen da, besteak beste.

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/datuen-gobernantza/hasiera/>

ESTRATEGIA

Datuen gobernantzaren onurak aitortuta, EAEko sektore publikoak lehen urratsak egin zituen "ARDATZ 2030 plan estrategikoa"-ren bidez. Plan horren helburua da gobernantza eraldatzea, berrikuntza sustatzea eta digitalizazioa bultzatzea, datuen eta zerbitzuen kudeaketa bateraturako oinarri sendoa ezarrita. Ikuspegi horren ondorioz, EAEko sektore publikoko datuen gobernantza-estrategia⁵ garatu zen, EAEko sektore publikoan efizientzia





Estrategia eta haren ekimenak DAMA⁶ nazioarteko erreferentziako metodologiaren araberakoak dira, eta jakintza-arlo nagusien inguruan egituratzen dira.



Estrategiaren helburu nagusiak

Honako hauek dira EAEko sektore publikoko datuen gobernantza-estrategiaren helburu nagusiak:


- Funtsezko eragileen arteko harreman-eredu bat ezartzea: inplikaturako alderdien artean lankidetzazko esparru bat ezartzea, datuen kudeaketa efizientea koordinatzeko (sailak, organismo autonomoak, entitateak, etab.).
- Datuen kalitatea bermatzea: datuak zehatzak eta fidagarriak direla ziurtatzea, EAEko sektore publikoan erabakiak hartzen laguntzeko.
- Pribatutasuna babestea: datuak babesteko araudiak betetzea eta EAEko herritarrek informazioaren erabileran konfiantza izatea sustatzea.
- Elkarreragingarritasuna erraztea: eragindako alderdien arteko (sailak, organismo autonomoak, etab.) datu-integrazioa sustatzea, lankidetzazko eta baliabideen optimizazioa hobetzeko.

- *Data-driven*⁷ kultura sustatzea: EAEko sektore publikoko eragile guztien arlo guztietan datuen erabilera bultzatzea, zerbitzuetan etengabeko hobekuntzako praktikak sustatuta.

Estrategiaren mugarr nagusiak

EAEko sektore publikoa datuen gobernantzako hainbat ekimenetan ari da lanean. Hona hemen orain arteko aurrerapen nagusiak:

► Datuaren Bulegoa sortzea



Estrategiaren ibilbide-orriari jarraituz, **EAEko sektore publikoko Datuaren Bulegoa** sortu da, eta funtsezko organismoa da EAEko sektore publikoan datuen gobernantzarako eta datuak partekatzeko. Organo horrek zeregin eta erantzukizun hauek ditu:

- Datuen kalitatea eta irisgarritasuna bermatzeko jarraibideak eta metodologiak sortzea, eta informazioa erabiltzeko praktika egokiak sustatzea.
- Sail eta organismo publiko guztiek datuen kudeaketa etiko eta efizienterako ezarritako estandarrak eta politikak betetzen dituztela koordinatzea eta bermatzea.
- Datuen gobernantzarekin lotutako

⁶ **DAMA:** teknikari eta enpresari irabazi-asmorik gabeko antolakunde independente globala da, informazioaren eta datuen kudeaketako kontzeptuen eta praktiken aurrerabidera emana, eta helburu hauek ditu:

1. Datuen eta informazioaren kudeaketa enpresaren funtsezko aktibo gisa hartzea, garatzea eta gauzatzea sustatzea.

2. Konpainiak kontzientziatzea datuetan/informazioan oinarrituta lan egiteak dakarren abantailaz, eta behar dituzten bitartekoak eskaintzea.

<https://www.damaspain.org>

⁷ **Data-driven:** erabakiak datuetan oinarrituta hartzea adierazten du, hau da, enpresak edo entitateek beren enpresa-ekintzak bildutako informazioan oinarritzea.

rolak eta funtzioak esleitzea.

- EAEko sektore publikoko langileak trebatzea datuen kudeaketarekin lotutako eskumenetan.
- EAEko sektore publiko osoan sustatzea datuetan oinarritutako kultura.

«Datuen gobernantza onak, besteak beste, erabakiak hobeto hartzea ahalbidetzen du»

► Tresna inplementatzea

EAEko sektore publikoa datuen gobernantzarako tresna zentralizatu bat inplementatzen ari da, datuen kalitatea monitorizatzeko, pribatutasun-araudiak betetzeko eta entitateen arteko elkarrengarritasuna hobetzeko. *Informatica*⁸ izeneko plataforma horrek datuak denbora errealean kontrolatzeko aukera ematen du, eta informazioan oinarritutako erabakiak hartzea errazten du, zerbitzu publikoak optimizatuta eta informazioa etikoki erabiltzea bermatuta.



► “Manifestu etikoa” egitea

Kudeaketa arduratsuekiko konpromisoaren barruan, “EAEko sektore publikoko datuen eta adimen artifizialeko sistemen gobernantzarako manifestu etikoa”⁹ garatu du EAEko sektore publikoak. Dokumentu horrek gardentasunaren, pri-


batutasunaren eta EAEko herritarren eskubideekiko errespetuaren printzipioak ezartzen ditu, eta datuen eta teknologien erabilera bidezko eta arduratsua sustatzen du.



ONDORIOAK

EAEko sektore publikoko datuen gobernantza erronka bat da Administrazioaren barne-kudeaketa modernizatzeko eta optimizatzeko, eta onura argiak dakartzatza bai eragileentzat (sailak, organismo autonomoak, entitateak, etab.), bai EAEko herritarrentzat; besteak beste, gardentasuna, efizientzia eta erantzuteko gaitasuna hobetzen ditu, zerbitzu pertsonalizatuak eta irisgarriagoak eskainita.

Beraz, datuen gobernantza ez da proiektu bat, **praktika** bat baizik. Hain zuzen ere, prozesu honetako lehen ahaleginak kasu praktikoak bultzatzera bideratu dira sail eta organismo autonomo aurreratuenetan, hala nola Eustaten eta EJIEn. Horiek aitzindariak izan dira EAEko sektore publikoan jardunbide egoki komunak definitzeko eta hedatzeko.

EAEko sektore publikoko eragileen pixkanakako parte-hartzeari esker eraiki ahal izango da administrazio publiko gardena, arduratsua eta EAEko sektore publikoaren premiekin, EAEko herritarrekin eta etengabe eguneratu behar diren gidalerro estrategiko eta legalekin bat datorrena. 



⁸ **Informatica:** informazio gehiago nahi izanez gero, web-orria kontsulta dezakezue: <https://www.informatica.com>

⁹ **Manifestua:** Eusko Jaurlaritzaren web-orria, datuen gobernantzari buruzkoa. Besteak beste, datuen gobernantza-estrategia, parte hartzen duten arloak eta manifestu etikoa biltzen ditu. <https://www.euskadi.eus/manifestu-etikoa/azalpena/web01-a3data/eu/>



TEKgunea 4.0

TEKgunea ezinbesteko hitzordua da teknologian eta horrek administrazio publikoan duen eraginean interesa duten pertsonentzat. Abenduaren 4an laugarren edizioa egin zen. Hona hemen han azaldutakoaren kronika.

TEKgunea 4.0 jardunaldiaren leloak galdera eta erantzun bana biltzen zituen, aurreko edizioaren amaierarekin loturik: *“Eta orain zer? Nola erabili teknologia emergenteak izapideak arindu eta errazteko”*.

Hitzordua Gasteizen (Araba) izan zen, *Ondare Center*¹⁰ gune berezian. Arkitektura eta ezagutza, EUNEIZ unibertsitatearen¹¹ egoitza ere baden eraikinean.

Izapideak arinduz eta sinplifikatuz eta, jakina, gizartean inpaktua sortuz herritarrengana hurbiltzeko teknologia disruptiboetara ateratzeko dugun modua aztertzeke eta ezagutza partekatzeko deia 250 pertsonak baino gehiagok erantzun zioten.

Iñaki Leturia EitBko *Teknopolis* saioaren aurkezleak gidatu zuen ekitaldi osoa.



TEKgunea 4.0 jardunaldia hartu zuen eraikina

[Argazkia: Estrategia Digitalaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza]

JARDUNALDIA

Jardunaldiari Maria Ubarretxena Cid Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren sailburuak eman zion hasiera, anfitrioi gisa. Nabarmenezkoa da Administrazioa **desburokratizatzeko**, **arintzeko** eta **sinplifikatzeko** lankidetzaren aldeko

apustua egin duela legegintzaldi honetan. Agenda komun baten alde egin du, eraldaketa digitalaren, elkarreragingarritasunaren eta leihatila bakarraren ere-



Maria Ubarretxena Cid, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren sailburua [Argazkia: Irekia. Eusko Jaurlaritza]

duaren ikuspegi bakarrarekin lan egiteko. Gainera, pertsonak eta enpresek gehien eskatzen dituzten zerbitzuen eta izapideen berri eman zigen. Horietan jarriko da sinplifikazioaren fokua 2025etik aurrera Eusko Jaurlaritzan, eta honako hauek dira:

1. Emantzipa
2. Gaztelagun (etxebizitzak alokatzeko Alokabideren laguntzak)
3. Familia- eta lan-bizitza bateragarri egiteko laguntzak
4. Telelaguntza Zerbitzu Publikoa (BetiOn)
5. Izena ematea Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroan
6. Diru-sarrerak bermatzeko errenta
7. Hondakin metalikoak kudeatzen dituzten enpresentzako komunikazio-zerbitzua
8. Seme-alabengatikoko laguntzak

¹⁰ **Ondare Center:** eraikina 2006tik 2008ra bitartean eraiki zuten, eta 3 solairu eta soto bat ditu.

“Kanpoko itxurak zuhaitz-enborren eta baltsetako ihien antzeko forma organikoak erakusten ditu, eta beirazko fatxadak eraikinaren eta inguruaren arteko lotura bisuala sustatzen du”.

<https://ondarecenter.com>

¹¹ **EUNEIZ unibertsitatea:** unibertsitate pribatua da, EAEko unibertsitate-sistemakoa, eta 2022/2023 ikasturteaz geroztik maila guztietako unibertsitate-irakaskuntzen sorta zabala eskaintzen du.

EUNEIZ unibertsitatea Salburua parkearen ondoan dago, Gasteizko eraztun berdean.

<https://www.euneiz.com>

TEKgunearen aurreko edizioan aurkeztutako proiektuei buruzko kontuak emateko txanda hasi zuen Bilboko Udaleko Ane Miren Ibáñezek. Seuldik etorri zen nazioarteko sari batekin, iaz ezagutu genuen “Zibersegurtasuna herritarrentzat” proiektuagatik. Ekimen hori Bizkaiko hiriburuan hedatzen ari den Bilboko Eraldaketa Digitalerako Agenda 2030 estrategian sartzen da.

Era berean, Kudeaketa Prozesaleko *Avantius* Sistema Eusko Jaurlaritzan garaiz hedatzen ari dela jakin ahal izan genuen, eta horretan elkarrekin lanean ari direla EAE, Nafarroa, Kantabria, Aragoi eta Andorra. Ana Lópezek oraindik abian den proiektuaren aurrerapenak eta gainditu dituzten zailtasun eta oztopo guztiak azaldu zituen. Dagoeneko 8 milioi jakinarazpen judizial telematiko baino gehiago biltzen ditu.

Lehen bloke hori ixteko, Oier Pérezek TEKgunearen formatu txikiaren berri eman zizun. Formatu hori iritzi- eta balorazio-inkestetan egindako iradokizunen bidez sortu zen. 2023an parte hartzeko bi jardunaldi tematiko egin ziren, “NIK Patrika Digitala” eta “geoEuskadi” proiektuak ardatz hartuta. EAE osoko hainbat udalerritan *geoUdala* lantaldeen eredu bat garatzea ahalbidetu duen jardunaldiaren esperientzia positiboa azaldu zigun Juan Carlos Barrosok. Izandako arrakasta eta hainbat entitatek adierazitako interesa kontuan hartuta, eredu txikian lanean jarraituko dugu 2025ean, iradokizunen arabera.

Jardunaldiaren bloke nagusia hitzaldi laburretan aurkeztu ziren 6 proiektu berriak izan ziren, berrerabiltzeko eta taldean lan egiteko helburua zutenak.

CCASAtik, Rubén Gilek barne-proiektu batean lortutako ezagutza guztia partekatu

zuen. Proiektu hori Teamseko *txatbot* baten inguruan garatu dute AA sortzailearekin, eta barne-dokumentuei buruzko galderei erantzuteko aukera ematen du.

«Administrazioaren desburokratizazioan, arintzean eta sinplifikazioan aurrera egitea da legegintzaldi honetako apustua»

EJIEko Mónica Lamasek xehe azaldu zigun Eusko Jaurlaritzaren Zuzenean zerbitzuan herritarrei arreta emateko abian jarri duten sistema adimendun eta aurreratu berriaren garapena. Herritarrei zuzendutako proiektua da, kanal anitzeko arreta pertsonalizatu ulerterraza eman ahal izateko (*Zuzenean Copilot*).

IZFEko Eduardo Carrascok AAn oinarritutako laguntzaile bat garatzeko esperientzia azaldu zuen. Laguntzaileak balorazio arin, zehatz, homogeen eta funtsatua egin dezake, mendekotasun-kasuetarako itxaronaldiak murriztuta. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiarena izaki, legeak betez eta modu guztiz etikoan.

Lantikeko Ainara Etxeandiak, bestalde, Bizkaiko Foru Aldundian izapideak arintzeko eta sinplifikatzeko estrategia nola planteatzen ari diren azaldu zigun, hainbat proiektutan AA eta automatizazioa baliaturik. Hainbat sailetan garatzen ari diren AA klasikoaren, AA sortzailearen eta RPAn¹² kasuak.

Donostiako Udaleko Manu Narvaez udal webgunea AAren bidezko irakurketa errazterako eraldatzeko prozesuan ari da lanean. Edukien eta erabiltzaile-esperientziaren azterketa xehatu batetik



¹²RPA: prozesuen automatizazio robotikoa (ingelesez, *Robotic Process Automation*), gaur egun, adimen artifizialarekin eta *big data*ekin batera, enpresek “*eraldake-ta digitala*” gauzatzeko erabiltzen duten funtsezko piezetako bat da.

Zehazki zertan datzan jakiteko, Aurrera aldizkariaren 72. zenbakian argitaratutako “RPA: Prozesuen automatizazio robotikoa” artikulua kontsulta dezakezue (2020ko ekaina).




[Argazkia: Estrategia Digitalaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza]



HITZALDIEN ETA HIZLARIEN ZERRENDA (I)

- ▶ *“Zibersegurtasuna eta ongizate digitala”*. Ane Miren Ibáñez (Bilboko Udala)
- ▶ *“Avantius prozeduren espediente judizialean (Justizia)”*. Ana López (Eusko Jaurlaritza)
- ▶ *“TEKgunea Txiki. Esperientzia: geoEuskadi”*. Juan Carlos Barroso (Eusko Jaurlaritza) eta Oier Pérez (Eusko Jaurlaritza)
- ▶ *“Txatbot Teamsen AA sortzailearekin”*. Rubén Gil (CCASA)
- ▶ *“Herritarrentzako arreta adimenduna/aurreratua”*. Sara Egiluz (Eusko Jaurlaritza) eta Mónica Lamas (EJIE)
- ▶ *“Mendekotasuna baloratzeko AA laguntzailea”*. Eduardo Carrasco (IZFE)
- ▶ *“AAn oinarritutako eraldaketa digitala”*. Ainara Etxeandia (Lantik)

[9. orrialdean jarraitzen du]



[Argazkiak: Irekia. Eusko Jaurlaritza]

abiatutako proiektua da, eta informazio-iturriak lantzeko aukera ematen du, bai gaztelaniaz, bai euskaraz, ulerterrazagoak izan daitezzen.

Azken hitzaldi laburrean azaldu ziguten Eusko Jaurlaritzaren sinplifikazio administratiboko eredu bat lantzen ari dela, bai eta zein diren pertsonak erdigunean jartzen dituen ereduaren hurrengo urratsak. Aurkezpen horrek agerian utzi zuen erronka handia dela, eta zailtasunen berri eman ziguten EJEko Maritxu Rodríguezek eta Eusko Jaurlaritzako Noemí Aldamak.




Jardunaldiaren amaieran mahai-inguru bat egin zen, Eusko Jaurlaritzako Herritarren Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko zuzendari Sabino San Vicentek moderatuta.

Mahai-inguruak izenburu hau zuen: *“Herritarren arreta teknologia disruptiboaren aroan. Arreta-eredu aurreratuak”*. Hiru foru-aldundietan herritarrei arreta emateko eskumena duten pertsonak parte hartu zuten, eta haien egungo ikuspegia partekatu ziguten, etorkizunari begira. Ikusi ahal izan genuenez, administrazio-kiko harreman-ereduek aldake-

tak izango dituzte datozen urteetan, eta azken 10 urteetan ikusi ditugunak baino askoz ere eraldatzaileagoak izango dira.

Hauek izan ziren mahai-inguruko parte-hartzaileak: Iker Miranda, Arabako Foru Aldundiko Zerbitzu Orokorren zuzendaria; Xabier Iridoy, Gipuzkoako Foru Aldundiko Administrazioaren Berrikuntzako zuzendari nagusia; eta Javier Bikandi, Bizkaiko Foru Aldundiko Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako zuzendari nagusia.

ITXIERA

Eusko Jaurlaritzako Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorren sailburuorde Agustín Zubillaga Regok eman zion itxiera jardunaldiari. Hainbat gogoeta egin zituen eta jardunaldian ikusitakoa 3 ideia-aren inguruan laburbildu zuen: **teknologia**, **konpromisoa** eta **pertsonak**. Inork ez du teknologiarik gabeko Administrazioa ulertzen, eta bere ahalmen eraldatzailea aprobetxatu behar dugu. Teknologiaren eta prozesuaren arteko binomioa negoziotik hurbil egoteko diziplina anitzeko elkarrizketa holistikoetan, eta, hala, pertsonengandik eta haien premietatik hurbil. Gogoetarako galdera bat uzten digu: 10 urte barru, zer? 



[Argazkia: Estrategia Digitalaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren eraikuntza.]

Aurreko edizioak...

Aurreko jardunaldien inguruko informazioa:

* **TEKGunea 1.0:** 2021eko martxoaren 24an eta 25ean Gasteizen (Araba) egina, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan.

* **TEKGunea 2.0:** 2022ko maiatzaren 25ean Oñatin (Gipuzkoa) egina, Arantzazuko San-tutegiaren inguruan.

* **TEKGunea 3.0:** 2023ko apirilaren 26an Bilbon (Bizkaia) egina, Guggenheim museoa.

* **TEKGunea 3.5:** Administrazio Publikoko adimen artifizialari buruzko edizio berezia, Bilboko (Bizkaia) Euskalduna Jauregian egina, 2024ko urtarilaren 17an.

Informazio gehiago:

www.euskadi.eus/tekgunea



[8. orrialdetik dator]

HITZALDIEN ETA HIZLARIEN ZERRENDA (eta II)

► *“Irakurketa erraza AAre eskutik”*. Manu Narváez (Donostiako Udala)

► *“Sinplifikazio administratiboa: hurrengo urratsak”*. Noemí Aldama (Eusko Jaurlaritzaren eta Maritxu Rodríguez (EJE))

► Mahai-inguruak: *“Herritarren arreta teknologia disruptiboaren aroan. Arreta-eredu aurreratuak”*

Sabino San Vicente (Herritarren Artatzeko eta Administrazioa Berritzeko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritzaren)

Iker Miranda (Zerbitzu Orokorren zuzendaria. Arabako Foru Aldundia)

Xabier Iridoy (Administrazioaren Berrikuntzako zuzendari nagusia. Gipuzkoako Foru Aldundia)

Javier Bikandi (Koordinaziorako eta Estrategia Digitalerako zuzendari nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia)

Jardunaldiaren bideoak:

<https://www.youtube.com/watch?v=yfIUlmnPDfl>

<https://www.youtube.com/watch?v=TwjQTaSpDi4>



¹³ **Ziurtagiria:** informazio gehiago nahi izanez gero artikulua hau kontsultatu daiteke "Eusko Jaurlaritzaren eAdministrazioa plataformak SEN ziurtagiria lortu du", Aurrera aldizkarian argitaratua, 84. zk. [2023ko ekaina]



ALBOAN

ALBOAN

SEN vs ISO27001

Eusko Jaurlaritzak Segurtasun Eskema Nazionalaren (SEN) ziurtagiria dauka, maila ERTAINEKOA¹³, Administrazio elektronikorako Plataformari dagokionez eta, zehatzago, eAdministrazioa plataforma teknologikoak (PLATEA) dituen informazio-sistemei dagokienez: webgunea, izapidetzea, dokumentuen kudeaketa eta integrazioa. Plataforma horren bidez, izan ere, herritarrek erabiltzen dituzten zerbitzuak eskaintzen ditu.

OCA Instituto de Certificación, S.L.U.

certifica que, de acuerdo a la declaración de aplicabilidad vigente, los sistemas de información reseñados, todos ellos de categoría MEDIA y los servicios que se relacionan, de la organización certifies that, in accordance with the current declaration of applicability, the information systems reviewed, all of them in MEDIUM category, and the related services, of the organization

EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO
SEDE CENTRAL GOBIERNO VASCO: Donostia San Sebastian Kalea, 1.
01010 Vitoria-Gasteiz (Álava-Araba)
Centros de Trabajo/Work Centers: Ver anexo/See annex

han sido auditados y encontrados conforme con las exigencias del Real Decreto 311/2022 de 3 de mayo, por el que se regula el Esquema Nacional de Seguridad según se indica en el correspondiente informe de auditoría de 29/04/2024.
have been audited and found to comply with the requirements of Real Decreto 311/2022 of May 3, which regulates the National Security Scheme as indicated in the corresponding audit report 2024/04/29.

CATEGORÍA / CATEGORY	C	I	T	A	D	Total de Medidas / Total Measures
MEDIA / MEDIUM	MEDIA / MEDIUM	MEDIA / MEDIUM	MEDIA / MEDIUM	MEDIA / MEDIUM	MEDIA / MEDIUM	68

Los sistemas de información que soportan la Plataforma Tecnológica e-Administración (PLATEA) (Web, Transmisión, Gestión Documental, Integración), según el documento de categorización vigente.
The information systems that support the e-Administration Technology Platform (PLATEA) (Web, Processing, Document Management, Integration), according to the current categorization document.

Número de certificado / Certificate nº: 34/5704/24/06125
Fecha de certificación de conformidad inicial: 13 de junio de 2024
Initial conformity certification date: June 13, 2024
Fecha de renovación de la certificación de conformidad: 13 de junio de 2026
Conformity certification renewal date: June 13, 2026
En Puzos de Alarcón, a 13 de junio de 2024
In Puzos de Alarcón, June 13, 2024

45566958H
DAVID LAO (R. 100.08.04.01.01)
B65341075

Firma digitalizada por el sistema CERTIFICADO
Date signed by the system

David Lao
Director General
CEO

Baina ziurtagiri hori edukitzeak ez du bermatzen denboran zehar informazio horren segurtasunean mantentze-lanik egingo denik.

Beraz, hori lortu ahal izateko, ISO/IEC 27001:2022 (ISO) arauaren ziurtagiria lortzeko lehen urratsak ematen hasi gara; ziurtagiri horri esker segurtasun-prozesu guztiak **etengabe** hobetuko dira. Artikulu honetan, informazioa babesteko bi bide horiek aldeartzen dira.

SEN ETA ISO

Segurtasun Eskema Nazionala Espainiako Gobernuak sortutako **arau-esparrua** da, sektore publikoak eta bertan lan egiten duten hornitzaileek duten informazioaren segurtasuna bermatzeko xedea duena. Helburu nagusia da, hain zuzen, informazioa eta zerbitzu elektronikoa babesteko behar diren **politikak** eta segurtasun-**betekizunak** ezartzea.

ISO, bestalde, **nazioarteko** araua da, informazioaren segurtasunerako kudeaketa-sistema (ISKS) ezartzeko, finkatzeko, mantentzeko eta hobetzeko betekizunak zehazten dituena. Edozein erakundetan aplikatzeko diseinatu zen, erakundearen tamaina edo sektorea zein den kontuan hartu gabe.

SEN eta ISOren arteko antzekotasunak

Segurtasun Eskema Nazionala eta ISO informazioaren segurtasuna bermatzeko arau-esparruak dira. Horretarako, irizpide hauek hartzen dira kontuan:

- Informazioaren babesa: mehatxuen aurrean informazioa babestea dute helburu nagusi.
- Segurtasun-mailak: sistemak sailkatzen ditu ezarrita dauden balioen arabera (baxua, ertaina, altua) eta zehaztutako dimentsioen arabera (erabilgarritasuna, osotasuna, konfidentzialtasuna, benetakotasuna eta trazabilitatea – EOKBT-).
- Segurtasun-baldintzak: segurtasun-neurri edo -kontrol desberdinak aplikatzen dira, aplikatu beharreko segurtasun-eremuen arabera.
- Arriskuen kudeaketa: bi esparru horiek arriskuen kudeaketaren garrantzia azpimarratzen dute, segurtasun-neurriak ezartzeko oinarri gisa.

- Dokumentu-egitura: segurtasun-neurriak betetzen direla eta eraginkorrak direla frogatzeko dokumentazio egoia sortu eta mantendu behar da.

«ISO ziurtagiriak nazioarteko aintzatespena ematen die erakundeei, informazioaren segurtasunarekin duten konpromisoagatik»

SEN eta ISOren arteko desberdintasunak

- Aplikazio-eremua: SEN nahitaezkoa da Espainiako sektore publikoarentzat eta haren hornitzaileentzat. ISO, aldiz, edozein erakundetan aplikatu daiteke, edozein sektoretan, maila globalean.
- Ikuspegia: Segurtasun Eskema Nazionala informazioaren eta zerbitzuen sailkapenean oinarritzen da, segurtasun-mailetan (baxua, ertaina, altua). ISOk, aldiz, arriskuak kudeatzeko ikuspegi bat du ardatz, erakundearen arrisku espezifikoak identifikatzen eta tratatzen dituena.
- Ziurtagiria: SENek nahitaezko ziurtagiria behar du sistemaren segurtasun-mailaren arabera. ISO ziurtagiria, berriz, borondatezkoa da, oso onartua, eta bezeroek eta bazkide komertzialek asko eskatzen dute.
- Etengabeko hobekuntza: Segurtasun Eskema Nazionalak etengabe eguneratu behar dela baino ez du adierazten. ISOk, berriz, informazioaren segurtasuna kudeatzeko etengabeko hobekuntza nola egin zehazten du.
- Baldintza arautzaileak: Segurtasun Eskema Nazionala Espainiako Gobernuak arautzen du zorrozki, eta bat dator Espainiako legeekin. ISO, aldiz, aplikazio globala duen nazioarteko araua da, hainbat lege- eta arau-ingurunetara egokitu daitekeena.

Arau-esparru bakoitzaren onurak

- SEN: Segurtasun Eskema Nazionala betetzeak aukera ematen die sektore publikoko erakundeei **estatuko araudia** betetzen dela bermatzeko, eta horrek sistema publikoen erresilientzia hobetzen du eta hainbat erakunderen arteko elkarreragin-garritasuna ziurtatzen du. Gainera, herritarrek informazioa kudeatzeko moduan konfiantza izatea sustatzen du.
- ISO: ziurtagiri horrek nazioarteko aintzatespena ematen die erakundeei, informazioaren segurtasunarekin duten konpromisoagatik. Gainera, etengabeko hobekuntzako ziklo bat ezartzen du, informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistemaren egokitasunari, egokitzapenari eta eraginkortasunari eusteko.



ONDORIOA

SEN eta ISO funtsezko erreferentzia-esparruak dira informazioaren segurtasuna kudeatzeko, baina hartzaile eta testuinguru desberdinetara bideratuta daude. Segurtasun Eskema Nazionala Espainiako sektore publikora bideratuta dago eta hura betetzea nahitaezkoa da; ISO, berriz, nazioarteko araua da, eta malgutasuna eskaintzen dio munduko edozein erakunderi, haren sektorea edo kokapena edozein dela ere.

Bi eskemek onura esanguratsuak ematen dituzte informazioaren babesari dagokionez, eta elkarrekin osatzen dira, batak dituen eta besteak ez dituen alderdiak estaliz.



ARAUDIAK

ISOri lotutako araudiaren barruan, Informazioaren **Pribatutasunean** oinarritutako ziurtagiri bat ere badago, **ISO/IEC 27701** nazioarteko estandarrak arautzen duena, eta, funtsean, Informazioaren Segurtasunari buruzko ISO/IEC 27001 ziurtagiriaren luzapena da.

Datu pertsonalekin lan egiten duen eta datuen pribatutasuna eta segurtasuna kudeatzeaz kezkatuta dagoen edozein erakunde publiko edo pribaturi zuzenduta dago.



SENri buruzko webgunea:
<https://ens.ccn.cni.es>

ISOri buruzko webgunea:
<https://www.aenor.com>

ADIMEN ARTIFIZIALAREN EGOERA EAEN

Basque Artificial Intelligence Centerrek (BAIC) urriaren 23an aurkeztu zuen AAK EAEn duen egoeraren lehen diagnostikoa. Txosten horrek AAren ekosistemaren egungo egoera eta etorkizun potentziala ebaluatzen ditu. Hauek dira azterlanaren ondorio nagusiak:

▶ **AA hartzea:** EAEko entitateen % 12,2k AA teknologiak erabiltzen dituzte, eta horrek erakusten du oraindik ere hazkunde-tarte handia dagoela. Hala ere, identifikatutako AAren erabilera-kasuen aniztasuna handia da EAEn (400 kasu baino gehiago erregistratu baitira).

▶ **Eragin ekonomikoa:** AAKo soluzioak hornitzen dituzten enpresen fakturazioa 105 milioi eurotara iritsi zen, eta enpresa erabiltzaileen diru-sarrerak, batez beste, % 9 igo ziren AA duten teknologiak sartzeagatik.

▶ **Enplegua:** 7.500 profesionalak baino gehiagok egiten dute lan AAn EAEn, biztanleria aktiboaren % 0,7. Horietatik, % 17 ikerketan aritzen dira, eta gainerako % 83 enpresa-sektorean sartuta daude.

▶ **Prestakuntza:** EAEk 35 programa arautu baino gehiago ditu, eta, guztira, 34.000 irakaskuntza-ordu baino gehiago. Gainera, arautu gabeko prestakuntza-programa ugari daude eskuragarri.

▶ **Azpiegitura teknologikoa:** EAEk errendimendu handiko 6 konputazio-zentro (HPC) eta 2026rako aurreikusitako super-ordenagailu gehigarri bat ditu, eta horrek indartu egiten du EAEk AAKo proiektuak gidatzeko duen gaitasuna.



Informazio gehiago:
<https://situacion-ia-euskadi.baic.eus>

2024KO GLADYS SARIA LOREA ARGARATE ZUBIARENTZAT

Lorea Argarate Zubia teknologo eta musikariak *IV. Gladys Saria* jaso du, EAEko ingurune digitalean lan egiten duten emakume gazteen lana aitortzeko. Sari hori PuntuEUSen eta UPV/EHUko informatika-fakultatearen arteko lankidetzaren fruitu da.

Bilbon jaio zen 1990ean, eta gaur egun Berlinen (Alemania) bizi da. Ibilbide akademiko eta profesional aipagarria du. Fisikan hasi zenetik, akustika ulertzeko nahiak bultzatuta, hainbat trebetasun garatu ditu, besteak beste, telekomunikazioetako prestakuntza sendoa, industria-antolakuntzan graduondokoa eta arlo berritzaileetan hainbat master, hala nola BigData, BI eta Blockchain.

TAZEBAEZ kooperatibako ekintzaile gisa duen zereginean islatzen da hezkuntzarekin eta dibulgazio zientifikoarekin duen konpromisoa. Koope-

ratiba horretan hezkuntzaren eremuko digitalizazioan eta berrikuntzan aritzen da. Era berean, funtsezko zeregina izan du *"White Mirror/Tech for Good"* programan, non adierazi baititu teknologia emergenteen inpaktu sozialaren aurreko kezka eta teknologia horiek guztion onerako erabiltzeko gogoia.

STEAM ereduan oinarrituta, Lorea Argaratek zientzia, teknologia, ingeniari-tza, artea eta matematika bere lanean integratu nahi ditu. Gainera, hainbat ekimenteran parte hartu du, emakume gazteak arlo horietako unibertsitateko ikasketak egitera motibatuzko. Izan ere, funtsezkoa da arlootan emakumezko ereduak ikusaraztea.

Informazio gehiago:



<https://puntu.eus/ezin-dezakegu-izan-mundu-bat-non-garatu-diren-soluzioetan-ez-duten-parte-hartu-neskek/>



Lorea Argarate Zubia
[Argazkia: PuntuEUS]

